


Aurkezpena

Justin Solorzano, Mireia Elexpe, Amaia Durán eta Mireia López gara, proiektu honen sortzaileak. Guk, enpresa buru moduan, zerbitzu bat eskaintzea erabaki dugu “**DENBEZTU**” izenarekin. Izena horrekin helarazi nahi duguna da gure zerbitzuari (kotxeetarako zerbitzuak) esker jendea denbora aurreztu ahal izango duela laguntza erraz batekin. Zerbitzu berria da, Euskal Herrian zehar ez delako inoiz aurkitu ezta sortu, horregatik proposamen bidegarria dela uste dugu. Andra Mari kalean, Durangoko erdigunean kokatuko da. Denda ugari bertan daude, taberna eta jatetxe desberdinak aurki daitezke eta hainbat monumentu daude; ondorioz, jende asko bertatik ibiltzen da eta gure negozioarentzat onuragarria izan daiteke. Zerbitzu hau eskaintzea erabaki dugu kotxearekin arazoak ugari direlako jende artean, IAT-arekin batez ere.



DENBEZTU

denbora aurreztu

Balorezko proposamena

Gure enpresa zerbitzu oso arina eta eroso izango da. Jendeak beraien denbora ez galtzeko (lanari huts egiten adibidez) kotxea mekanikora edo garbiketa egitera eramateko, gu deitu eta guk geuk lan hori beteko dugu. Gaur egun arazo asko izaten dira autoek dituztenak, IAT-a, motorra, gurpilak, etab. Hori dela eta, bezeroek deitu, guk kotxea hartu eta tailerrera eramango dugu. Erabiliko dugun materiala, ekipamendu informatikoa eta enpresaren auto propioak izango dira.



Lan egiteko lekua guretzat zein bezeroentzat eroso izatea nahi dugu; gure enpresak batez ere leialtasuna, erosotasuna eta segurtasuna helarazi nahi dugulako. Lan-bulego argitsua eta modernoa izango da bezeroak erakartzeko eta zerbitzu serioa dela ikus dezaten. Bestalde, eramango dugun ordutegia nahiko zabala izango da. Gustatuko litzaiguke egun osoan zehar bulegoa zabaldua izatea, baina hornitzaileekin batera lan egiten dugunez eta beraiek ordutegia zehatz bat jarraitzen dutenez, ezinezkoa egingo zaigu. Hori dela eta erabaki dugu goizetan 7:00etatik 14:00ak arte zabaltzea eta arratsaldez 16:00etatik 20:00ak arte.



Laburbilduz, gure enpresak eskainiko duen balio printzipala erraztasuna izango da. Zure autoarekin arazoren bat izanez gero, gure enpresaren bitartez, autoa konponduko duzu etxetik mugitu gabe. Gainera, ez dituzu zure betebeharrak alde batera utzi behar izango.